

Koldo Mitxelena: In memoriam

Koldo Mitxelena Erreterian jaio zen 1915eko abuztuaren 20an, eta herioza Donostian iritsi zitzaion 1987ko urriaren 11an.


Ustekabean, Aldizkariaren ale hau inprimatzen ari zelarik, heldu zaigu Koldo Mitxelena Elissalten heriotzaren berri samina. Nazioarteko zientzilari ospetsu eta mirestua, Koldo Mitxelena dugu euskal filologo eta hizkuntzalari-tan lehena, itzalik haundienekoa.

Koldo Mitxelena Eusko Ikaskuntzako kide izan da, balio eskerga izan duen harremanean.

Horrela, Batzorde Nagusian aritu zen, eta Eusko Ikaskuntzak Bilbon ospatutako IX. Kongresoan aurkestu zuen txostenaz ekarpen handia eta sakona eskaini zion gure Elkarteari eta beronen batzar tradizioari.

R.I.E.V., Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren 2. etapa edo deitzen dugunean lankide sutsu eta desinteresatua izan dugu Koldo Mitxelena, gure argitalpena ospea ematen lagundu duelarik.

Gure oroitzapenik egjazkoena euskal zientzilari haundiari.



Koldo Mitxelena : [In memoriam] / [Juan Garmendia Larrañaga]. - En: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. - Donostia : Eusko Ikaskuntza. - T. XXXII, 2 (1987), p. 280-281